

noticias de Navarra

Diario de Noticias de Navarra. Noticias de última hora locales, nacionales, e internacionales.

iii feria de la edición de navarra

Brouard, GAL-en atzaparretan erori zen pediatria

Harkaitz Canok idatzi eta Adurrek ilustratutako

‘Antzara eguna’ komikiak, Santi Brouarden hilketaren pasartea berreskuratzen du, mediku lekeitiarraren izaeran sakontzeko.

Testua Miren Mindegia | Argazkia Iñaki Porto - Domingo, 24 de Noviembre de 2019 - Actualizado a las 06:02h




Harkaitz Cano eta Adur Larrea, atzo, Iruñeko Editargi azokan eskainitako aurkezpenean.

Bere kontsultan zegoela, idazkariaren oihuak en-tzuen zituen, laguntza eske. “Zein arraroa”, erran zion lankideari, aulkitik altxatu eta kontsulta eta sarrera banatzen zituen atea ireki zuen. Bizitzan egin zuen azkeneko gauza izan zen. Hantxe bertan hil zuten, tiroz, Santi Brouard pediatria lekeitiarra Luis Morcillo eta Rafael López Ocaña GAL-eko kideek. 1984ko azaroaren 20a zen, Euskal Herriaren historian betirako gorritz markatuta gelditu zen eguna.

Izan ere, Brouardena ez zen edonolako hilketa izan. Julian Sancristobal Espainiako estatuko Segurtasun idazkariak agindua eta dirua eman zizkion Rafael Masa poliziarri, eta hark Morcillori eta López Ocañari ordaindu zien hilketatik. Aldez aurretik pentsatu eta planifikatutako hilketa bat izan zen, eta Brouard, bere independentzia eskatzen zuen Euskal Herriaren zimenduak dantzan jartzeko aukeratutako biktima: HASI alderdiko lehendakaria, HBko mahai nazionaleko kidea, Bilboko alkateordea, parlamentaria, mediku pediatria...

Francoren diktaduraren gerizpean eraikitako trantsizioaren ondorengo Espainiako demokraziaren garai ilunak ezin baino hobe islatzen dituen gertakari latz hau, komiki formatura eraman dute orain Harkaitz Cano idazleak eta Adur marrazkilariak, Txalaparta argitaletxearen eskutik plazaratu den *An-tzara egunalanean*. Gertakarietan oinarrituta eta fikzioaren gailua erabiliz, bere konpromisoagatik Euskal Herriko familia politiko desberdinetan itzel handia izan zuen pertsonaia honen bizitzan murgiltzen da kontakizuna. Canok argitu moduan, Brouard

 Preferencias de privacidad

politikoki zein maila humanoan. Mediku pediatra izateak, gainera, oso giza talde ezberdinen artean ezaguna izatea esan nahi zuen. Gaztea ere ez zen, hil zutenean 65 urte baitzeuzkan, eta GALEk hura hiltzeak, non eta bere kontsultan, inarrosaldi berezia eragin zuen garaiko euskal gizartean”.



Cuenta NÓMINA de ING. La cuenta para tu día a día, que te pide menos y te da más

Te da tarjetas y transferencias gratis y en el día. Te da 2 días de descubierto gratis. Te da la opción de encender y apagar tus tarjetas. Te da la opción de abrir tu cuenta en 5 minutos. Te da la opción de cerrarla en un clic. Te da notificaciones al instante. Y te da mucho más...

[Abre tu cuenta ahora >>](#)

Lanaren helburua, Adurrek berak zehaztu bezala, “pertsonaiaren alderdi pertsonalena erakustea” izan da, bere aldartea eta izaera ezagutzera ematea. “Historia, zoritxarrez, ezaguna da, baina pertsonaia beraren alderdi ezkutua ez hainbeste”, zehaztu du. “Pertsonaira hurbilduz hainbat gauza ulertu daitezke, bai testuingurua, garaiko pentsamendua... Mikro-historiatik, makro-historia ulertu daiteke”. Hala, istorioaren trama beltza garrantzitsua izan arren, pasarte ezagunenak *off*-ean edo planotik kanpo utzi ditu Canok, eta beste hainbat iradoki besterik ez dira egiten: “Batez ere haren giza alderdian zentratu gara, sendagile bezala haur zein helduekin zuen tratua bitartez 80etako gizartearen lagin bat islatzen saiatuz, noiz gordin eta noiz samur. Gaixoekiko harremana beti da hauskorra: gaixotzen den umea heldu egiten baita halabeharrez, eta gaixorik den heldua, paradoxikoki, umetu. Pediatría kontsulta bat, umeak sendatzeko baino, gurasoak lasaitzeko lekua dela esan ohi zue Santi Brouardek...”.

Testigantza eta bestelako baliabideen bitartez, adiskide eta mediku hurbila, txantxazalea, irakurle amorratua eta euskaltzale petoa ere bazen pertsona bat aurkitu zuen Canok. Adurrek gehitu bezala, “beti lagun-tzeko prest zegoen tipo bat zen, eta ekimen askotan inplikatu zen, tartean Lemoizko zentralaren kasua”.

Komikia baino lehen, filma Duela bost urte ekin zion idazleak *Antzara eguna*-ri, aitortzen duen bezala, zinemarako gidoi bat egiteko xedearekin. Lehenengo asmo hori baztertuta, lana komiki formatuan plazaratzeko hautua egin zuen, Txalaparta argitaletxearen zigiluarekin. Orduan hasi zuen Santi Brouarden pertsonaian sakontzeko testigan-tza bilketa. “Testigantzak jasotzeaz gain”, azaldu du, “garrantzitsua izan zen niretzat Adurren adiskide Javi Pascualek Brouarden agenda helarazi izana. Telefono zenbaki eta helbideez gain, zita literarioak eta bestelako anotazioak zeuzkan bertan eta nobela grafikoaren eraikina altxatzen lagundu zidan plano moduko bat bilakatu zen larruzko agenda hura. Fetitxe hura aldean nuela idatzi nuen gidioa”.

Komikiaren estiloari dagokionez, Adurrek testuinguru historikoaren iluntasuna islatu nahi izan du, zuri-beltzaren erabileraren bitartez. “Istorioak badu beltzetik, eta garaiko komikien estiloa eman nahi izan diot, trametan oinarrituta: kolorea ordezkatzeko, puntu trama bat erabili dut, garaira hurbiltzeko helburuarekin. *Retro* kutsu bat badu”. Izan ere, “gure historiako pasarte ilunenetako bat da hau, Espainiako Barne Ministerioko muinetik ateratakoa, goi-goitik ateratako hilketa planifikatu bat. Hiltzaileak, hau da, azken tximinoak zigortuak izan ziren bakarrik”.

Santi Brouarden hilketaren nolakotasunak, dudarik gabe, estatuaren atzaparrak agerian utzi zituen, trapu zikinak sekula garbitu ez dituen aro politiko eta sozial ilunenetako baten islan bilakatuz. “Epaitegiak, egindakoa aitortzeko eta erantzukizunak eskatzeko orduan aski motz ibili zirela esango nuke”, zehaztu du komikiaren idazleak. “Beste bortxakeria mota batzuekin alderatuz gero, GALEkin lotutako erantzuleen zerrendak eta bete zuten zigorraren urriak asko esaten du Espainiako demokraziaren pitzadurei buruz”.

ANTZARA EGUNA

Egileak

Harkaitz Cano eta Adur Larrea

Argitaletxea Txalaparta

Generoa Narratiba

 [Preferencias de privacidad](#)